



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

2025eko martxoaren 11ko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko martxoaren hamaikan arratseko zazpiak eta erdietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IRIART Jean Claude, IÑARRA François, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ezin etorriak: AYÇAGUER Elorri
Saioko idazkaria: IDIART Claudine

Deialdiarne data: 2025eko martxoaren 7a
Afixatze data: 2025eko martxoaren 7a

7.ERABAKIA: HARTZEKOEN BAZTERTZEA **AURREKONTU NAGUSIA** (7.1 nomenklatura)

Auzapezak biltzarkideei jakitera eman die, bertako zenbait mozkin berreskuratzeko ahalegin guziak egin eta gero, herriko hartzaileak galdutzat eman dituen zenbait hartzekoen berri eman diola herriari. Kontseiluak hartzeko horien baztertzeaz erabaki behar du.

Honako taulan agertzen dira hartzekoak:

Gaia	Erreferentzia	Ekitaldia	Zenbatekoa
Jantokia	T-1295	2022	3.00 €
OROTARA			3.00 €

Biltzarkideei proposatu dien gaiari buruzko iritzia eman dezaten.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

- ERABAKI DU, lehenago zehaztu 3.00 €-ko hartzekoaren baztertzea.

- ZEHAZTU DU, zenbatekoa funtzionamendu gastuetan agertuko dela (6541 kontuan) herriaren aurtengo ekitaldiko aurrekontuan.

Jardunean diren kideak: 15
Presente direnak: 14
Adierazi diren bozkak: 14
ALDE: 14
KONTRA: 0
ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2025eko martxoaren 21a

Auzapeza:

Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2025eko martxoaren 24an argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.